Ordizian euskara eta kulturartekotasuna sustatzen duen proiektu berria: Azokatik eskolara

"euskararen zaporea"



Ordiziaren bihotzean, asteazkenero bizitzak azokaren usaina hartzen du, AZOKA kolorez eta ahotsez betetzen da. Barazkiak mahaietan lerrokatzen dira, lurraren bihotzetik jaiotako ortzadar baten antzera. Bakoitzak bere itxura, bere kolorea eta bere usain berezia dauka: azenarioaren eta brokoliaren goxotasuna, baratxuriaren indarra eta porruaren samurtasuna. Guztiak desberdinak, guztiak beharrezkoak. Elkarren ondoan, bizitzaren elikadura osatzen dute. Bakoitzak bere zaporea, bere indarra, bere goxotasuna ematen du. Eta guztiak, nahiz eta ezberdinak izan, gauza bera partekatzen dute: lurraren hizkuntzan hitz egiten dute, euskaraz.

Mahai eta postuen artean, goxotasunez eta isilean, Goizane, Mariane eta Peru daude, gure hizkuntzaren zaindari isilak dira. Esaten dute Ordiziako biztanleak haien ondotik euskaraz hitz egiten pasatzen direnean, beraien harrizko bihotzak irribarre egiten dutela. Hitz horiek pozez entzuten dituzte, euskararen soinua barruan daramaten bizitza esnatuko balute bezala.

Goizane, plazan dagoen baserritarra da: lurra lantzen duen eta bere lanaren fruituak harrotasunez eskaintzen dituen emakumea da. Mariane, arrautza freskoekin iristen da azokara, bizitzaren eta itxaropenaren ikurra aldarrikatuz. Eta Peruk, bere latxa ardiarekin batera, maite duena zaintzen eta babesten dakien artzainaren pazientzia gogorarazten digu.

Ordiziako herrian bezala, barazkiek ere lurraren hizkuntzan hitz egiten dute, euskaraz. Gure ikasle bakoitzak, bere hizkuntza eta bere historiarekin, euskaran bere etxea aurki dezaten nahi dugu. Gure eskolan, ikasleak Ordiziako azokan dauden fruitu eta barazkien antzera ezberdinak dira: bakoitzak bere kolorea, bere jatorria, bere istorioa dauka, baina badago guztiei lotzen dien zerbait, baratza guztiak ureztatzen dituen uraren antzera, euskara da batzen dituena.

Baserritarrek Euskal Herriko baratzak zaintzen dituzten bezala, guk ere, gure kultura eta hizkuntza pazientziaz, maitasunez eta gozamenez ureztatuko ditugu. Euskarazko hitz bakoitza izan dadila nortasunaren eta elkarbizitzaren hazi bat. Euskara da ahotsak lotzen dituen hari ikusezina, gure hitzei zaporea ematen dien usaina, eta ezberdintasunen gainetik elkar aurkitzeko zubia. Euskara zaintzea gure kultura zaintzea da, eta hori egitean, gozamenez, norbere barruko baratza maitasunez haziko da.

Denok desberdinak bagara ere, sustraia bera dugu. Eta sustrai horretan loratzen da gugan dagoen onena: errespetua, elkarbizitza eta euskara bizirik mantentzea.

Eskolan, Ordizian eta azokan, euskara ez da soilik hitz egiten den hizkuntza, sentitu, bizi eta partekatu egiten da. Ordiziako ahotsak kaleak betetzen dituzten bitartean, Goizanek, Marianek eta Peruk pozik begiratuko gaituzte, jakinda haiek zaindu zuten hizkuntza oraindik gure artean loratzen dela.

